Euskararen erabilpenaren kale neurketa 1993: abiapuntu berria

Kike Amonarriz

Kike Amonarriz Siadeco ikerketa-taldeko partaideak EKBk egin duen euskararen kale erabilpenaren neurketaren emaitzak hartzen ditu aztergai artikulu honetan. Lehenik eta behin neurketaren fidagarritasun handiaz dihardu, hala nola Iñaki Larrañaga soziologoak asmatutako metodoarenaz. Datuak irakurtzeko zenbait irizpide proposatzen ditu eta balorazio argia mahaigaineratzen: euskararen erabilpen soziala Euskal Herrian guztiz minoritarioa da; hala eta guztiz ere, inoiz hipotesi modura erabili izan diren zifra guztiak gainditzen ditu. Puntuz puntu neurketaren emaitzetan sakontzen du egileak, bai adin taldekako emaitzak azalduz eta ondorio garrantzitsuak nabarmenduz, bai herriz herriko datuei buruzko argibideak eskainiz. Ekinbide praktikorako zenbait ideia ondorioztatuz amaitzen da lana.

Kike Amonarriz, a member of the Siadeco research group, delves into the results of assessing the amount of Basque spoken in the street according to a study conducted by the EKB (Euskal Kulturaren Batzarrea or Basque Culture Congress). First and foremost he concerns himself with the high reliability of the assessment as well as the method developed by the sociologist Iñaki Larrañaga. In reading the data, he proposes some criteria and sheds some light on the evaluation: social use of Basque is very much a minority affair in the Basque Country; nevertheless, it used more than any hypothetical figures might suggest. The author delves deeply into the results of the assessment, point by point, in which he interprets the results by age bracket and highlights the important consequences by offering information on data drawn from to town. The paper ends by concluding with some ideas for taking practical initiatives.

EKB - Euskal Kulturaren Batzarrea
BAT - Soziolinguistika Aldizkaria 13/14 - 1994ko azaroa
Baleazaleen kalea 12 - 1. A Donostia. Tfnoa: 46 66 76 / 50 Faxa: 46 68 94

Aitzinsolasa

EKBk Euskal Herrian zehar burutu duen euskararen erabilpenaren kale neurketaren azterketa historikotzat jotzea ez da inongo gehiegikeria.

1989ko neurketak hainbat emaitza eta ikerketa-ardatz eskaini bazizkigun ere, era honetako azterketek behar izaten dute bigarren balidazio praktikoa, ateratako ondorioen balioa berresteko. Berrespen hori, 1993ko kale-neurketak eskainitako datuen bidez dator. Izan ere, datu horiei esker eta lehenengo aldiz, Euskal Herri osoko leku publikoetako erabilpenaren indize erreala lortu ahal izan baitugu.

Datu honek abiapuntu berria eskaintzen digu Euskal Herriko soziolinguistika alorrean.

Emaitzen fidagarritasunaz

Euskararen erabileraren leku publikoetako neurketaren datuak azaltzerakoan maiz entzun behar izan ditugu berauen fidagarritasuna zalantzan jartzen zuten iritziak.

Datu soziologikoekiko egon daitekeen mesfidantzaz gain, errealitate sozial bizi eta aldakor baten jasoketa posible ote den zalantzan jartzen dutenen fidakaiztasuna dago joera horren azpian.

«Euskararen erabilpenaren kale neurketaren azterketa historikotzat jotzea ez da inongo gehiegikeria»

Horregatik, behin eta berriz azpimarratu dugu datu hauen baliorik handiena konparagarritasunean datzala:

.Egoera sinkroniko baten erradiografiara hurbiltzen gaituzte, zonalde, neurketaldi eta adin-multzo desberdinen datuak konparatuta.

.Bilakaera diakroniko baten diagnosi zehatza eskaintzen digute, sistematikoki burutzen badira.

Mementuko neurketak egoerara hurbildu ahal izateko elementuak eskaintzen dizkigu, beti ere, akats marjen batzuren barnean, baina benetako balioa diakronian du [1].

EKBk 1989an eta 1993an egindako neurketen konparaketak garbi uzten digu, neurketan errespetatu behar diren baldintza metodologikoak behar bezala betez gero, neurketen fidagarritasuna erabatekoa dela, dagokien azterketa-esparruan.

Helburutzat Euskal Herri osoko eta aldagai nagusien (herrialdea, udalerrien tamaina, adin-multzoak) araberako emaitzak lortzea zuen neurketa honetan desbideraketak udalerri

(1) Ikus Siadeco *Euskararen erabilera leku publikoetan* in *BAT* aldizkaria 9. zk. Donostia. 1993.

zehatz batzutan besterik ez dira gertatu. Desbideraketa hauek bestalde, ez dute eragin nabarmenik izan emaitza orokorretan.

Hala ere, esan beharra dago udalerri gehienen datuak ere orokorrean fidagarriak direla, nahiz eta neurketaren helburu zuzena ez izan udalerri bakoitzeko errealitate zehatza jasotzea.

Ondoren ikusiko dugun bezala eta froga gisa, esan genezake datu hauek bat datozela SIADECOk azken urteotan egindako ikerketetan edo bere metodologia jarraituz hainbat herritan jasotako datuekin.

EKBk burutu duen neurketa honen lehen ekarpen nagusia beraz, Iñaki Larrañagak sortutako eta asmatutako hizkuntz erabilpenaren neurketa-metodo honen eta beraren bidez jasotako emaitzen fidagarritasuna berretsi izana litzateke.

Neurketa orokor honi esker, euskal soziolinguistikak ekarpen teoriko-praktikoa eskain diezaioke nazioarteko ikerketa soziolinguistikoari.

«Datu hauen baliorik handiena konparagarritasunean datza: batetik egoera sinkroniko baten erradiografiara hurbiltzen gaituzte, eta bestetik bilakaera diakroniko baten diagnosi zehatza eskaintzen digute»

Neurketaren esparrua

Euskal Herrian inoiz ez zen egin horren neurketa zabalik euskararen kale-erabilpenaren inguruan. Neurketa egin den udalerrietan Euskal Herriko biztanleriaren %82 bizi da eta euskaldunen %79.

Kontutan izanik ordea, herri txikietako jende askok herri handiagoetan egiten duela lan eta bertan garatzen duela bere bizitza soziala, pentsa genezake, neurketan hartu dugun biztanleen esparrua oraindik ere handiagoa dela.

Edozein kasutan, erabilpenari buruzko indize orokorra ezer gutxi aldatuko litzateke udalerrien %100 hartuta ere. Euskal Herriko euskararen kale-erabilpenaren indize hau beraz ontzat jo behar dugu eta aurrerantzean, leku publikoetako erabilpenaren bilakaera zertan den ezagutzeko indize fidagarritzat onartu.

Emaitza orokorrak

Orokorrean euskararen erabilpena Euskal Herrian %11ren ingurukoa dela esan genezake.

Kopuru honek, errealitatearen bi ikuspegi kontrajarri erakusten dizkigu bat batean:

.Euskararen erabilpen soziala guztiz minoritarioa da.

.Hala ere, inoiz hipotesi modura erabili izan diren zifra guztiak gainditzen ditu.

Neurketa egin den udalerrietako batezbesteko ezagupena %20 ingurukoa dela kontutan izanik, garbi ikus genezake herri horietako kaleetan dabiltzan pertsonen artean, uneoro bi euskaldunetatik bat euskaraz ari dela (metodologiari buruzko artikuluan azaltzen genuen bezala ia-euskaldun edo erdaldun batzuk haurrekiko harremanak direla eta, kasu batzutan euskaraz hizketan jaso badaitezke ere, kasu hauek salbuespen hutsa dira).

Kopuru horien arabera euskaldunen hizkuntz leialtasuna, orokorrean uste genuena baino altuagoa da. Hala ere ezin dugu ahaztu datu baikor honen ondoan, neurketatik kanpo geratu diren herrien artean, hizkuntz erosiorik bortitzena jasaten ari diren Iparraldeko eta Nafarroako herri txikiak aurkitzen direla. Kuantitatiboki higadura honen eragina txikia bada lurraldetasunari eta alor kualitatiboari dagokienean (euskalki batzuk daude jokoan) garrantzi izugarrizkoa da.

Orokorrean hala ere, aurrikuspen itxaropentsuenen pareko emaitzak direla aitortu beharra dago.

«Datu hauek bat datoz SIADECOk azken urteotan egindako ikerketetan edo bere metodologia jarraituz hainbat herritan jasotako datuekin»

10.000 biztanletik gorako udalerrietan 1989tik 1993ra izandako bilakaera ere positiboa da: 7,6tik 9,0ra pasa gara (ezagupenean berriz 86tik 91ra, 18,4tik 19,9ra pasa gara).

Erabilpenak beraz, abiapuntu baxuagoa izanik, ezagupenak baino hobekuntza azkarrago darama proportzionalki.

Herrialdeka

Datuak herrialdeka aztertuz gero, igoera herrialde guztietan gertatu dela nabarmendu behar da.

Badirudi beraz, ezin dela zalantzan jarri euskararen ezagupenean nahiz erabilpenean azken urte hauetan goraka egin dugunik.

Herrialdeka honela geratzen zaizkigu 1993ko leku publikoetako erabilpenaren indizeak, 5.000 biztanletik gorako udalerriei dagokienez (Zuberoan eta Nafarroa Beherean ez dago kopuru horretako udalerririk).

Herrialdea	Ezagupena	Erabilpena
Gipuzkoa	41,9	21,5
Bizkaia	22,9	10,9
Lapurdi		4,9
Araba	8,2	2,6
Nafarroa	7,4	3,2

Ezagupenaren eta erabilpenaren arteko erlazioa nabarmena da kasu guztietan.

Desorekarik handiena Araban gertatzen da: ezagupenean Nafarroak baino indize altuagoa izan arren, erabilpenean proportzio baxuagoa eman baitu. Honek zerikusi zuena izan dezake Arabako eta Nafarroako euskaldunen jatorri eta ezaugarri desberdinekin. Izan ere, Araban gehiago baitira familia erdaldunetako seme-alaba euskaldunak, eta beraz, familia barruko harremanak erdaraz garatzen dituztenak.

Datu hauen arabera ondorio garbi batzuk atera genitzake:

.Herrialde guztietan euskararen kaleko erabilpena minoritarioa da.

.Gipuzkoan ezik beste herrialde guztietan (Bizkaian egoera hobexeagoa izan arren) «presentziaz» baino gehiago «latentziaz» hitzegin beharko genuke, izan ere kalean euskara entzuteko dauden aukerak oso txikiak baitira erabilpen-proportzioak horren txikiak izanik.

«Neurketa honen lehen ekarpen nagusia Iñaki Larrañagak sortutako neurketa-metodo honen eta beraren bidez jasotako emaitzen fidagarritasuna berretsi izana litzateke»

Azken urteotako bilakaerari buruz honako argibideak eman genitzake (portzentaiak pittin bat aldatzen dira 10.000tik gorako udalerriak besterik ez direlako sartzen konparaketan):

.Bizkaian eta Gipuzkoan 1986tik 1991ra euskararen ezagupenean ezagutu dugun gorakada %7 ingurukoa izan baldin bada ere, 1989tik 1993ra erabilpenean ezagututakoa %15 inguruan kokatzen da (10.000 biztanletik gorako herriez ari gara, 1989ko neurketan horiek besterik ez baitziren hartu).

.Araban ezagupenean nahiz erabilpenean gorakada %25aren inguruan kokatzen da eta Nafarroan berriz ezagupenean aldaketarik ez da gertatu baina bai ordea erabilpenean. Ezin dugu ahaztu ordea, Araban nahiz Nafarroan euskararen erabilpena 10.000 biztanletik gorako herrietan %2,5ean kokatzen dela.

.Lapurdin erabilpenean 4,3tik 5,5era pasa gara. Abiapuntu baxuko beste herrialdeen joera errepikatzen da.

.Arestian aipatu dugun bezala, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ez dago 5.000 biztanletik gorako udalerririk. Bi neurketak Donapaleun, Maulen eta Atharratzen egin zirenez ordea, herrialde horietako errealitateari buruzko ohar batzuk egin daitezke:

-Herriak (eta laginak) txikiak izanik, aldaketak handiagoak izan badaitezke ere, 3 herrietan erabilpena oso modu larrian jaitsi da: 43,6tik 15,6ra, 56,3tik 14ra eta

10,8tik 6,9ra hurrenez hurren.

-Badirudi jaitsiera hau joera orokorraren islada dela. Hala ere, Nafarroa Beherean bederen, pentsa daiteke, edo 89ko datuak altuak direla edo 93koak baxuak.

-Beheranzko dinamika honen nondik norakoen jarraipen zehatza burutzea eta tartean neurketa berriren bat egitea komenigarria litzateke.

Adin-taldeka

Herrialdekako datuekin batera, euskararen ezagupenean nahiz erabilpenean gertatzen diren aldaketei buruzko informaziorik adierazgarriena eta interesgarriena eskainiko digun beste aldagaia, adina da.

Izan ere, teoria soziolinguistiko desberdinen arabera, hizkuntzak hiru belaunalditan desagertu edo berreskuratu ohi direla dirudi (70 - 100 urte inguru).

Euskara galdu den zonaldetan urrats hauek gertatu dira:

1.-Zaharrek ondo zekiten eta normalean euskaraz egiten zuten.

«Orokorrean euskararen erabilpena Euskal Herrian %11ren ingurukoa dela esan genezake»

2.-Helduek bazekiten, baino gehiagotan egiten zuten erdaraz.

3.-Gazteek ulertzen zuten baina ez zuten egiten.

4.-Haurrek ez zekiten.

Bilakaera hau, oraindik ere aurki daiteke bizi-bizirik Iparraldeko edo Nafarroako hainbat herritan.

Honek ekarri du, galera-prozesua aurrera zihoan bitartean, Euskal Herrian zaharrek beti helduek baino gehiago egitea eta helduek gazteek eta hauek haurrek baino euskara gehiago egitea.

Euskal Herrian, malda honen lehen aldaketa haurren adin-taldeetan gertatu zen euskarazko irakaskuntzari esker. Hainbat herritan eginiko kale-neurketetan lortzen zen erabileraren kurba honelakoa baitzen:

Haurrak - Zaharrak - Helduak - Gazteak

Alegia, haurrak ziren euskaraz gehien egiten zutenak, ondoren zetozen zaharrak eta helduak eta gazteak ziren azkenik, euskaraz gutxien egiten zutenak.

Azken urteotan ordea, joera aldaketa nabarmenak hasi dira azaltzen. Dagoeneko, hainbat herri eta zonaldetan haurrek, zaharrek baino euskara gehiago egiten dute, eta gazteek helduek baino gehiago.

Ikus ditzagun 1989 eta 1993ko neurketen emaitzak:

1989	Haurrak	Zaharrak	Helduak	Gazteak
	11,2	11,0	6,6	5,1
1993	Haurrak	Zaharrak	Helduak	Gazteak
	13,9	8,6	7,7	7,3

Euskal Herriko 10.000 biztanletik gorako udalerriei dagokienez belaunaldien arteko aldaketa oraindik gertatu ez bada ere, dinamika honek horretara daroala ikus daiteke.

Izan ere, 1989an haurrek eta zaharrek ia erabilera-proportzio bera baldin bazuten ere, 1993an haurrek gora egin dute eta zaharrek behera (gauza bera ari da gertatzen ezagupenean: belaunaldirik zaharrena da euskaldunena eta horiek desagertzen doazen heinean adin zaharretako euskararen ezagupenaren batezbestekoa beherantz doa). Gaur egun haurren arteko erabilpenak 5 puntu baino gehiagoko aldea ateratzen dio zaharrenari.

Bestalde 1989tik 1993ra helduen nahiz gazteen erabilpenak gora egin badu ere, 89an aldea puntu t'erdikoa zen eta 93an ez da puntu erdira iristen, bi adin-multzo hauek zaharren erabilpenetik gero eta gertuago azaltzen direlarik.

Bilakaera honen adibiderik esanguratsuenetakoak Bilbo eta Donostiakoak ditugu:

Bilbo

1989	Haurrak	Zaharrak	Helduak	Gazteak
	3,0	2,4	2,4	2,3
1991	Gazteak	Haurrak	Zaharrak	Helduak
	6,1	5,2	3,8	3,3

Donostia

1989	Haurrak	Zaharrak	Helduak	Gazteak
	10,3	10,0	8,3	7,9
1991	Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak
	17,9	8,0	7,3	6,6

«Kopuru horien arabera euskaldunen hizkuntz leialtasuna orokorrean uste genuena baino altuagoa da. Aurrikuspen itxaropentsuenen pareko emaitzak direla aitortu beharra dago»

Bilakaera hau guztiz bat dator azken urteotan Siadecok Donostiako eta beste hainbat herritako udalentzat egin dituen neurketen emaitzekin.

Dinamika berri hau batik bat zonalde euskaldunetako udalerri ertain eta handietan gertatzen da.

Belaunaldien arteko aldaketa honek ondorio garrantzitsuak izan beharko lituzke, bai diskurtso mailan eta baita lehentasunak eta ihardunbideak finkatzerakoan.

Hain zuzen ere, alde haundiz, euskararik gutxien zerabilen adin-taldea gazteena zenean, erabileraren inguruko programa eta komunikazio-plangintzek gazteak izan ohi zituzten jomuga, baina beti ere oso diskurtso alarmistak erabiliz («zuek zarete euskararik gutxien darabilzuenak,...»).

Gaur egun, egoera irauli den hainbat lekutan zabaldu beharreko diskurtsoak justu aurkakoa beharko lukeela dirudi: «zuek zarete gurditik tiraka ari zaretenak eta helduen exenplu eta ohituren aurka, zuek zarete euskara berreskuratzen ari zaretenak...».

«Herrialde guztietan euskararen kaleko erabilpena minoritarioa da, eta Gipuzkoan ezik beste herrialde guztietan "presentziaz" baino gehiago "latentziaz" hitzegin beharko genuke»

Udalerrien tamaina

Euskal Herrian udalerriak zenbat eta handiagoak izan orduan eta erdaldunagoak dira. Joera honek ordea, udalerriak 25.000 biztanletik beherakoen eta gorakoen artean banatzeko besterik ez du balio. Bi multzo horien barnean hain zuzen ere, joerak ez baitira linealak hurrengo taulan ikus daitekeen bezala.

Herrialdea	Ezagupena[2]	Erabilpena
5.001-10.000	(29,6)	17,5
10.001-25.000	(39,5)	22,5
25.001-50.000	(15,7)	6,8
50.001-100.000	14,8	3,5
100.001<	10,9	4,0

Aipatu berri dugun bezala beraz, 25.000 biztanletik goitiko eta behetiko udalerriak bi multzotan bereiztuz gero, udalerria-

(2) Zenbait zifra parentesi artean jarri dugu, Hegoaldeko datuak direlako, nahiz erabilpenaren datua Euskal Herri osokoa izan. Iparraldean ez dago 50.000 biztanletik gorako herririk.

ren tamaina ez da inondik inora esanguratsua, ez ezagupenari, ez erabilpenari dagokienez.

Ezin dugu ahaztu Euskal Herriko udalerririk txikienen artean euskaldunenak eta erdaldunenak biltzen direla.

Handienen artean berriz, 50-100.000 bitartekoetan ezagupen-maila altuagoa izan arren, erabilpena altuagoa da 100.000tik gorakoetan. Bi multzo horietan sartzen diren udalerriak honako hauek dira:

.50.001-100.000: Getxo, Portugalete eta Irun.

.100.000 >: Gasteiz, Barakaldo, Bilbo, Donostia eta Iruñea.

Ezagupenean Getxok eta Irunek beren multzoko batezbestekoa igo egiten baldin badute ere, erabilpenean Donostiak igotzen du berea. Kasu honetan beraz, udalerrien tamaina eta ezagupen/erabilpen indizeen koerlazioa ez da erabat zuzena.

«Joera aldaketa nabarmenak hasi dira azaltzen. Dagoeneko, hainbat herri eta zonaldetan haurrek zaharrek baino euskara gehiago egiten dute, eta gazteek helduek baino gehiago. Belaunaldien arteko aldaketa honek ondorio garrantzitsuak izan beharko lituzke, bai diskurtso mailan eta baita lehentasunak eta ihardunbideak finkatzerakoan»

Udalerrika

Aurreko neurketa egin zenean azpimarratu genituen puntuen artean[3] oso garbi utzi genuen EKBk buruturiko neurketa Euskal Herri osora begira planteatuta zegoela eta udalerrikako datuak hurbilpenerako indize modura erabil bazitezkeen ere, ezin zitezkeela erabili udalerriko egoeraren islada zehatz bezala, ez baitzen hori neurketaren helburua.

Ohar hori berretsi egin behar baldin badugu ere, apika neurketa honetan aurkitu dugun sorpresarik nagusienetako bat, EKBren neurketaren emaitzen eta 1993an hainbat udalerritan SIADECOk berak edo Euskara Zerbitzu edo Euskara Taldeek beren metodoa erabiliz egin dituztenen arteko tarteak oso txikiak izan direla frogatzea izan da.

Kontutan izan behar da neurketa batzuen eta besteen baldintzak desberdinak izan direla bai neurketaldiei dagokienez (EKBrenean 3 eta besteetan lauzpabost) eta baita ere udalerri bakoitzean neurtutako zonaldeari dagokionez. Datak eta urte-sasoiak ere desberdinak izan dira eta honek aldaketa asko dakartza:

. Kostaldeko herrietan udatiarrak (eta erdara) ugaritzen dira udan.

. Udaberri-udan eguraldi onarekin haurren eta zaharren (euskararen) presentzia handitu egin ohi da.

(3) Hainbat egile: *Euskararen kale-erabilpenaren neurketa. Dossierra* in BAT aldizkaria 3/4 zk. Donostia 1991.

Hala ere, tarteak normalean oso txikiak izan dira. Ikus ditzagun honako adibideak:

	Lekeitio	Oiartzun	Bergara	Lezo	Tolosa	Elgoibar	Arrasate	Donostia
EKB	70,9	56,1	40,4	31,0	40,3	25,8	23	9,5
Beste	66,5	55,5	39,7	37,6	34,3	25,4	22,8	10,3

Zortzi neurketatik bostetan aldea ez da puntu batera iritsi. Besteetan aldeak exajeratuak ez badira ere, eta nahiz eta tarte baten barruan kokatu, garrantzitsuak dira. Kasu batzutan ordea, tarteen arrazoia agerikoa da, eta bi neurketen artean dagoen aldea azaldu egiten du. Adibide modura aurkeztuko ditugu:

. Lekeition Siadecorena udaberrian eta EKBrena neguan egin zenez, azken honen erabilpen-indizea altuagoa da, udatiar gutxiago eta arrantzale gehiago zegoelako herrian garai horretan.

. Tolosan, bi neurketek azokarekin batera gertatu ohi den erabilera altueneko larunbat goizeko neurketaldia hartu zuten. EKBk ordea ez zuen erabilera-puntu baxuena izan ohi den igande goiza hartu, era horretan batezbestekoa altuagoa ateratzen delarik.

. Lezon, aldearen arrazoia ez da horren garbi ikusten.

Edozein kasutan bi ondorio atera genitzake:

. Leku publikoetako euskararen erabilpenaren neurketak errealitatearen erradiografia egokia eskaintzen digu.

. Hala ere, neurketak erabat konparagarriak izan daitezen, baldintza beretan eginak izan daitezen ezinbestekoa da.

Udalerrikako datuen artean honako beste puntu hauek ere azpimarra daitezke, jarraitu beharreko aztarna modura.

Euskara nagusi den udalerriak

Biztanleriaren gehiengoak euskara dakien udalerriak ugariak baldin badira ere, ez da gauza bera gertatzen kaleko erabilpenaren mailan.

1993ko neurketaren arabera, 5.000 biztanletik gorako 7 udalerritan da euskara nagusi leku publikoetako erabileran:

.5.000-10.000 artekoetan: Lekeitio, Usurbil eta Oiartzunen.

«Biztanleriaren gehiengoak euskara dakien udalerriak ugariak baldin badira ere, ez da gauza bera gertatzen kaleko erabilpenaren mailan. 5.000 biztanletik gorako 7 udalerritan da euskara nagusi leku publikoetako erabileran»

.10.000tik gorakoen artean: Ondarroa, Oñati, Azpeitia eta Azkoitian.

Hauek lirateke nolabait esateko euskararen hiri-esparru nagusia, eta euskararen funtzio berreskurapenari begira dudarik ez dago bertako udalek, eta era guztietako erakunde, talde eta elkarteek nazio mailako gune eta motore izan behar dutela.

Udalerri horietan euskararen ezagupena %75etik gorakoa da Usurbilen ezik (%66). Azken kasu hau harrigarria da eta pentsa daiteke, edo zonalde erdalduna ez dela kontutan hartu edo biztanle erdaldunek bizitza sozial txikiagoa egiten dutela herrian bertan.

Horiez gain, 5.000 biztanletik gorako bi udalerri besterik ez dira, ezagupena %75etik gorakoa izan arren, erabileran erdia euskaraz egitera iristen ez direnak: Bermeo (%47) eta Baztan (%31).

Aitzitik, Euskal Herrian zehar 5.000 biztanletik gorako bi udalerritan ez da batere euskararik entzun: Gueñesen eta Korellan.

Euskararen kale-erabilpena %2tik behera dagoen udalerriak berriz ugariak eta garrantzitsuak dira:

.Nafarroan: Iruñea, Burlata, Antsoain, Zizur eta Tutera.

.Iparraldean: Miarritze

.Bizkaian: Basauri, Santurtzi, Trapagaran, Ortuella, Derio, Barakaldo, Etxebarri, Balmaseda, Sestao eta Portugalete.

Udalerri guzti horietan ezagupena %10ekoa edo baxuagoa da, Basaurin (%10,7) eta Derion (%21,6) ezik. Azken kasu honek azterketa berezia mereziko luke, ez baitu esplikazio errazik.

«Lekeitio, Usurbil Oiartzun, Ondarroa, Oñati, Azpeitia eta Azkoitia lirateke euskararen hiri-esparru nagusia, eta euskararen funtzio berreskurapenari begira dudarik ez dago bertako udalek, eta era guztietako erakunde, talde eta elkarteek nazio mailako gune eta motore izan behar dutela»

Herria	Ezagupena	Erabilpena
Ondarroa	78,5	79,1
Iturmendi	24,9	57,5
Abanto-Zierbena	6,8	18,8
Lizarra	7,7	16,0
Zalla	5,6	6,5
Tafalla	3,8	4,5
Gares	3,5	3,9

Kasu arraro batzutan, neurtu den erabilpena, ezagupena baino altuagoa da:

Oso ezagupen altuko kasuan (Ondarroa) edo oso baxukoetan (Zalla, Tafalla eta Gares), aldeak ez dira horren handiak eta biztanle euskaldunen (haur eta gazteak batipat) trinkotzearen ondorio edo kanpotik etorritako euskaldunen eragina izan daiteke.

Lizarran bertako euskalduntze-prozesu bereziaren ondorio lirateke emaitza hauek. Iturmendin badirudi lagina oso txikia izan dela eta inguruko herrietako biztanleek eta bertako zaharrek igo dutela batezbestekoa. Abando-Zierbenako kasuan, ez dago joera hau azal dezakeen arrazoi garbirik.

Hasieran azaldu dugunez, kalean une berean hizketan ari diren euskaldunen erdiak euskaraz ari dira. Proportzio hori bi neurketaldietan (edo bakarrean 89an egin ez bazen) herenetik beherakoa duten herriak segidan doaz. Bestalde, ezagupenean %10etik behera daudenak ez ditugu aipatuko, berauetan gorabehera handiagoak gerta daitezkeelako:

«Zenbait herritan hizkuntzaren erosioa oso barneratuta dago. Premiazkoa dirudi beraz, euskaldunen trinkotzeari eta identifikatzeari zuzendutako neurriak hartzea»

Herria	Ezagupena	Erabilpena	
	1991	1989	1993
Mungia	58,6	16,9	16,2
Eibar	46,6	14,3	14,5
Andoain	45,2	14,2	14,5
Abadiño	46,3		13,5
Lasarte-Oria	32,4	8,8	10,4
Irun	24,3	3,5	6,9
Durango	38,6	10,6	6,3
Leioa	15,4		4,7
Sopela	28,3		4,2
Getxo	14,3	2,8	3,5
Laudio	13,7	2,5	2,8
Erandio	12,7	1,0	2,6
Basauri	10,7	0,9	1,4
Derio	21,6		0,7

Zerrendan agertzen diren herri guzti hauetan, hizkuntzaren erosioa oso barneratuta dago. Premiazkoa dirudi beraz, euskaldunen trinkotzeari eta identifikatzeari zuzendutako neurriak hartzea.

Espazio faltaz oraingo honetan ezingo baldin badugu ere, interesgarria litzateke, datu horiek, zentsuan etxeko erabilpenaren inguruan azaltzen direnekin erkatzea eta erabilera mailako erosio hau, esparru publikoetan bakarrik ala esparru familiarrean ere gertatzen ote den aztertzea.

Azkenik esan 1989tik 1993rako konparazio horretan igoera nabarmenenak, salbuespenak salbuespen, oso herri erdaldunetan gertatu direla. Gertaera honek esplikazio erraza dauka. Izan ere, erabilera %3tik beherakoa baldin bada, erabilera eragin dezakeen edozein aldagaik proportziotan biderkatu egingo du, ondorengo bilakaeran hazkundea moteldu eta «normaldu» egingo delarik.

«Ikerketa honen garrantzia azpimarratu nahi nuke, abiapuntu berri bat eskaintzen digulako ikerketa soziolinguistikoen alorrean eta Euskal Herri osoko egoera soziolinguistikoa era egokiagoan interpretatu ahal izateko ezinbestekoa zitzaigun datua eskaintzen digulako»

Azken gogoeta

Azken gogoeta gisara ikerketa honen garrantzia azpimarratu nahi nuke, hasieran esan dudan bezala, abiapuntu berri bat eskaintzen digulako ikerketa soziolinguistikoen alorrean eta Euskal Herri osoko egoera soziolinguistikoa era egokiagoan interpretatu ahal izateko ezinbestekoa zitzaigun datua eskaintzen digulako.

Jasotako emaitzek gure errealitatearen bi ikuspegi kontrajarriak agertu dizkigute:

. Euskal Herri osoan zehar, euskararen kale-erabilpena baxua da: orokorrean %10 inguru.

. Hala ere, orain arte hipotesi mailan erabilitako aurrikuspenak baino altuagoa da.

. Azken urteotan bizkortzen ari da, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ezik.

Garrantzitsua da beraz neurketa objetibo honekin jarraitzea, hizkuntzaren erabilpena baita azken batean hizkuntza horren osasun-egoeraren adierazgarri garrantzitsuenetako bat eta adierazgarri hori zertan den etengabe jakin behar baita, gure gorputzeko odolaren tentsioaren gora-beherak jarraitzen ditugun moduan.

Ikerketa honek bestalde, aurrerapauso berriak emateko bide eskaintzen digu:

- Udalerrien sailkapena erabilera-indize eta mota desberdinen arabera. Sailkapen horiek, mapa soziolinguis-

tikoan agertzen direnekin erka daitezke [4].

- Ezagupena eta erabilpena bilduko lituzkeen indize sintetikoa lortzea.

- Orain arte jaso ez diren beste aldagai batzuren jarraipena: sexua, hiztun taldeak, hizkuntzaren kalitatea... [5]

Azkenik esan, bertan bildutako datuek, gure egoeraren diagnostiko ezin hobea osatu dutela eta euskalgintzan ari garen guztiontzat ezin material erabilgarriagoa izango direla.

Kike Amonarriz
Siadeco Ikerketa-taldeko partaidea

Member of the Siadeco research group

(4) HPIN: «Soziolinguistikazko mapa». Gasteiz. 1989.

(5) Ikus Jose Luis Alvarez Enparantza eta Xabier Isasiren «Hizkuntzaren kale erabilera; solaskide kopurua» in *Soziolinguistika matematikoa*. Bilbo 1994.